



Arartekoaren 2013ko abuztuaren 13ko ebazpena, Aste Nagusian Bilboko Udalak Europa parkea kontzertuetarako eremu gisa erabiltzeari buruzkoa.

Aurrekariak

- Txurdinagako Ondarroa kaleko xx. zenbakian bizi den pertsona batek gure iritzipean jarri du Bilboko Udalaren proposamen hau: Bilboko Aste Nagusiko jaietan, Europa parkea kontzertuetarako eremu gisa erabiltzea.

Kexan azaldu digunez, kezkatuta dago udalaren erabaki horrekin, ingurumenean eta berdegune hori kokatuta dagoen bizitegi-inguruan izan dezakeen eraginagatik. Zehazki, azaldu digunez, parke hori aisialdirako eremu gisa egokitzeko neurriak hartzean, agian beharrezkoa izango litzateke zuhaitz batzuk moztea eta habitat hori aldatzea. Era berean, bizitegi-inguru horretan kontzertuak egiteak berekin ekar ditzakeen hots-eragina, zikinkeria eta segurtasun-arazoak aipatu ditu. Horregatik, instalazio publiko estalietan beste aukera batzuk bila daitezten proposatzen du (BEC, zezen-plaza, Bilbao Arena...), horiek egokiagoak izan bailitezke, ingurumen-eragina gutxitzeko.

Idazkian adierazi duenez, Bilboko Udalak hitz eman du kontzertuen ondoren lehengo egoerara itzuliko duela parkea. Hala ere, kexagilea kezkatuta dago, horrelako ikuskizunek nahitaez sortzen dituzten eragozpenengatik, batez ere ustez aterako den zaratagatik.

- Kexa hau behar bezala bideratzeko asmoz, Bilboko Udalarekin harremanetan jarri gara, udalak hartu duen erabakiaren berri jakiteko: alegia, informazio-prozesua, kasu honetan auzokideek parte hartzea aurreikusita ote dagoen, proposamen horren orde zuzen hautabide hartu diren aintzat, azaldutako gaia zuzen baloratzeko balio dezakeen beste edozein zertzelada.

Era berean, gai hauen gaineko informazioa eskatu diogu: erabaki horrek sor ditzakeen inpaktuez egin den balorazioa; zarataren ondoriozko eragozpen, berdeguneetan eragite, zuhaitzak mozte, garbitasun, eta abarri buruz proposatu diren neurri zuzentzaileak zertan diren.

- Gure eskaerari erantzunez, Bilboko Udalaren Jaietarako eta Herritarrak Artatzeko Zuzendaritzaren txosten bat jaso dugu, Europa parkea jaigunetzat erabiltzeko erabakia justifikatzearen gainean.

Txostenean adierazten denez, erabaki hori *"una decisión de ciudad"* da. Aisialdirako eskaintza oro har ona izango bada, modu estrategiko ordenatuan eta orekatuan banatu eta antolatu behar dira, pixkanaka, kultur, kirol, musika eta antzerki jarduerak. Bestalde, udal jarduera horiek antolatu eta kokatzerakoan, honako printzipio hauek nagusitzen dira: jai eskaintza doakoa izatea, jendea erraz eta segurtasunez iristea antolatutako jarduera guztietara.



Orobat, eremu horiek aukeratzeko orduan, jarduera horien ondorioz sortzen diren eragozpenak saihesten edo gutxitzen ahalegintzen direla aipatu du.

Erabaki hori hartzeko prozedurari eta parte hartzeari buruz, adierazi du Jaietako Batzorde Mistoan eztabaidatzen eta erabakitzen dela Aste Nagusian zer eremu eta eszenatoki erabili. Batzorde horretako kide dira udalaren ordezkariak, udalerriko hainbat elkartetako ordezkariak eta Bilbao Konpartsak-ekoak.

Kontzertuak Europa parkean egiteko aukera hori Otxarkoaga-Txurdinagako Barrutiko Batzordearen aurreko agerraldi batean ere eztabaidatu da, horixe baita organo deszentralizatu eskuduna parkea kokatuta dagoen eremuan.

Beste toki batzuk aintzat hartu ondoren aukeratu da eremu hori. Horrela, baztertu diren beste hautabide batzuk aipatu ditu, horrelako kontzertuetarako edukiera eskasa dutelako (Bilbao Arena edo Etxeberria parkea) edo horrelako ikuskizunetarako segurtasun-baldintza gutxiago dituztelako (Miraflores). Erabaki horri dagokionez, hauxe azaldu du hitzez hitz txostenean: *“El parque Europa tiene una superficie aproximada de 170.000 metros cuadrados, aunque la ubicación del escenario delimitará la zona de conciertos de una forma natural y dejará una superficie de unos 10.000 metros cuadrados para ese cometido y con una buena visión. El escenario estará ubicado de espaldas a la carretera general, en la zona más baja del parque de Europa. Esta ubicación consigue transformar el Parque en un Anfiteatro natural perfecto para el disfrute de conciertos. Precisamente se ha escogido esta localización porque de esta forma se minimiza el impacto sonoro a las viviendas más cercanas”*.

Instalazioen segurtasuna dela eta, txostenean azaltzen denez, eremu irekia da, instalazioak husteko oztoporik gabea, eta hara erraz irits daitezke garraio publikoak (metroa eta Bilbobus) eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonak.

Naturan izan dezakeen eraginari buruz, bizi-kalitateko eta iraunkortasuneko zerbitzuak egindako balorazioaren berri eman du. Hiriko beste eremu batzuetan kontzertuak egin izan direnean (Etxeberria parkea, Abando Ibarako eremuak, Gasaren plaza, Kaxilda parkea) berdeguneen egoerak ez omen du gehiegizko kalterik jasan eta berdegune horiek laster etorri omen dira bere onera, Aste Nagusia bukatu eta berehala. Udalaren ustez, *“Tras la finalización de estos eventos, siempre se ha llevado a cabo las consiguientes labores de jardinería necesarias para la correcta regeneración de la zona verde afectada”*.

Garbitasunari dagokionez, honako hau adierazi du: *“el servicio de limpieza pública pondrá todos los medios mecánicos y humanos necesarios para realizar diariamente una limpieza adecuada en el mínimo tiempo posible y realizará la desinfección de la zona de influencia de los conciertos, con el fin de que los vecinos y vecinas de Bilbao puedan hacer el uso habitual y disfrutar del Parque de Europa a la mayor brevedad y con la menor afección posible”*.





Europa parkearen eremuko zuhaitz mozketak direla eta, mozketak horiek parke eta lorategien atalak egin omen ditu (ehun zuhaitz), zuhaitzen osasun-egoera ikusita neurri hori hartu beharra zegoelako.

Orobat, kontzertuen aurreko egunetan, urmaelean bizi diren hegaztiak biltzeko asmoa dago. Jaiak bukatu ondoren itzuliko dira lehengo tokira.

Gogoetak

- Kexa honetan udalaren erabaki bat aipatzen da, hain zuzen, 2013ko Aste Nagusian, Europa parkea aldi batean kontzertuetarako erabiltzea.

Erabaki hori eztabaidagarria iruditu zaio pertsona eta elkarte multzo bati, berdegune horretan izan dezakeen ingurumen-eraginagatik eta inguruko biztanleei sor diezazkiokeen eragozpenengatik.

Bilboko Udalak, Aste Nagusiko jaietan jarduera ludikoak eta jostagarriak antolatzeke duen eskumena erabiliz, kokapen berri hori zergatik aukeratu duen zehaztu du bere erantzunean.

- Udalak arrazoi hau eman du aldi baterako jaigune hori ohiko jai-eremutik urrun dagoen eremu batean jartzeko: erabaki estrategikoa da –bere on-gaitzekin- era askotako gune ludikoak eskaintzeko, baita eremu seguruagoak eta iristerrazagoak ere.

Aisialdi-eremuaren kokapen berri horrek (Europako parkea) bateragarri izan behar du indarreko legerian aldi baterako eta aparteko ikuskizun publikoetarako ezartzen dituen legezko betekizunekin.

- Jendaurreko jarduera eta ikuskizunetan, erakunde pribatuek ala publikoek sustatu dituzten kontuan hartu gabe, ingurumenari buruzko araudia ezarri beharra dago. Araudi hori ingurumen arloko kontrolaren pean egoten da indarrean jarri baino lehen, inguruan sor daitezkeen eragozpenak ekiditeko edo gutxitzeko. Jendaurreko jardueretan, horiek egitea erabakitzen duen administrazio publikoak zuzen baloratu beharko du inguruan izango duten eragina, eta eragin hori konpontzeko neurriak hartu beharko ditu, esijentzia maila ezberdinarekin, jardueren iraunkortasunaren eta intentsitatearen arabera.

Zarata kontrolatzeari buruz, azaroaren 17ko 37/2003 Legeak, Zaratarri buruzkoak, hots-kalitatearekin zerikusia duten helburuak eta administrazioaren esku-hartzea ezarri ditu igorpen-iturriak kontrolatzeko. Zehaztu beharra dago Bilboko Udalaren ingurumena babesteko udala ordenantzak, 80. artikuluan, hots-kutsadurazko manuak bazter uzten dituela herriko jaietako ikuskizun eta jardueren kasuan. Edonola ere, 37/2003 Legeak eta urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoak- prozedura bat ezarrita daukate helburu horiek aldi baterako etetea onartu ahal





izateko, bere eskumenekoak diren ekintza sozial, kultural edo antzekoak burutzeko orduan.

Bidali dizkigun agirietan, Bilboko Udalak aditzera eman digu segurtasunezko, iristerraztasunezko eta ingurumenezko zein irizpide hartu diren kontuan Aste Nagusiko kontzerturen bat Europa parkean kokatzea erabakitzeko. Aintzat hartu dira ordezkoko beste kokapen batzuk, ingurumenean izango zuen eraginaren ebaluazioa egin da eta hainbat neurri zuzentzaile proposatu dira kontzertuak egin nahi diren eremuan eragozpenak eta inpaktua saihesteko edo gutxitzeko.

- Oro har, erabaki publiko guztiek berekin ekarri behar dute erabakiaren egokitasunaren gaineko gizarte-eztabaida, eta ingurumenean eragina duen kasu zehatzean, sor ditzakeen eragozpenen gainekoa.

Erabaki hori legezkoa izanda ere, administrazioak ahalik eta gizarte adostasunik handiena lortzen saiatu behar du bere proposamenaren inguruan. Horretarako, herritarren partaidetza lagungarria da eta aukera anitz eskaintzen ditu, aztertu beharrekoak, administrazio-prozeduran balioztatutako prozedurak alde batera utzita.

Bilboko Udalak aipatu duenez, kasu honetan, eztabaida zabala egin da kontzertuen kokapena aldatzeko udal ekimenari buruz. Horrela, Jaietarako Batzorde Mistoak eta Otxarkoaga-Txurdinagako Barrutiko Batzordeak esku hartu omen dute. Eztabaida horrek, dudarik gabe, hartu beharreko erabakia hobetu du, izan ere, ikuspuntu ezberdinak entzun eta balioztatu ahal izan dira eta udalaren proposamen horren alde onak eta txarrak ezagutu ahal izan dira. Hobetzeko proposamen gisa, iradoki daiteke eztabaida hori hurbil dadila erabakia zalantzan jarri duten eta eztabaida-foroetan parte hartzerik izan ez duten gizarte-taldeetara (kasu honetan, auzokideak eta elkarte ekologistak), batez ere pertsona-multzo eta elkarte horiek foro horietan zuzenean eta aktiboki parte hartzea aurreikusita ez baldin badago.

Bestalde, parte-hartzeak irekia behar du izan, hautabide guztiak bideragarriak baldin badira eta azken erabakian eragiteko benetako aukera baldin badago, eta taldeen ekarpenak kontuan hartu behar dira, halakorik izanez gero. Nolanahi ere, udalaren organo ordezkari eskudunari dagokio azken erabakia hartzea. Kontua ez da udalaren eskumen-eremua mugatzea, ezta kontrako taldeek beto eskubidea ezartzea ere. Kontua da aukera eta proposamen guztiak aktiboki entzun eta hausnartzea, erabaki hobea hartzeko balio izan dezaten.

Gure ustez, udalak erabakia hartutakoan, gizarte-eztabaida ez bukatzea proposa daiteke. Partaidetza-aukerak hartutako erabakitik harago eraman behar dira. Gainera, partaidetzari esker, zenbait mekanismo ezar daitezke erabakia nola gauzatu eta kudeatu den baloratzeko, baita geroko ebaluazioa egiteko ere.

Behin erabaki horiek hartuta, interesgarria da gaia ardura zaien taldeekin komunikazio-bideak mantentzea, erabaki publikoa eta jarritako neurri





zuzentzaileak zenbateraino ezarri den aztertzeko. Horrela, funtsezkoa da eremu publikoa jaigune gisa erabili baino lehen, erabiltzen ari denean eta erabili ondoren, hobekuntza-proposamenak aktiboki entzutea, geroago erabakia egokia izan den ala ez ebaluatzeko.

Ondorioa

- Jaigune bat aldi baterako Europa parkean kokatzea erabakitzeko orduan, zer prozesu burutu duen azaldu digu Bilboko Udalak. Erabakia hartzean, kontuan hartu dira horretarako dauden kontsulta-organoen (Jaietako Batzorde Mistoa) eztabaida eta iritzia, baita udalaren beste organo erabakitzale batzuenak ere (Barrutiko Batzordea).

Bilboko Udalak kontuan hartu diren segurtasunezko, iristerraztasunezko eta ingurumenezko irizpideen berri eman digu. Aintzat hartu dira ordezkoko beste kokapen batzuk, ingurumenean izango zuen eraginaren ebaluazioa egin da eta hainbat neurri zuzentzaile proposatu dira kontzertuak egin nahi diren eremuan eragozpenak eta inpaktua saihesteko edo gutxitzeko.

- Orduan, Arartekoaren iritziz, udal administrazio horrek aurreikusitako neurriak zuzen bete daitezzen zaindu behar du, eremu publiko hori jaigune gisa erabiltzeak sor ditzakeen eragozpenak prebenitzeko eta, gertatzen badira, gutxitzeko.

Horretarako, interesgarria da herritarrei informatzeko eta herritarrek parte hartzeko mekanismoak ezartzea eta, horietan, elkarteek eta gaia arduraz zaienek kokapen berri horren inpaktuaz duten iritzia eman ahal izatea –aurretiaz eta gero-.

Era berean, informazio hori kontuan hartu beharko litzateke, udalak gero erabaki horretaz ebaluazioa egin dezan, etorkizunean toki horretan jai-ekitaldiak egiteko.

